


# IRAKURKETA ESTRATEGIAK


2010eko urria

Jarduerak eta estrategiak  
ez dira  
gauza bera



# IRAKURKETA ESTRATEGIAK


**Estrategia** jakintza bat da eta horri esker irakurle gaituek lortzen dute testuetara iristea eta testuak ulertzea.



# IRAKURKETA ESTRATEGIAK


## **Irakurle gaitu batek :**

- Berariazko helburu batekin irakurtzen du
- Hipotesiak egiten ditu irakurri aurretik eta bitartean
- Bere irakurketa prozesua kontrolatzen du eta irakurtzean aurkitzen dituen zailtasunak konpontzeko baliabideak ditu



# IRAKURKETA ESTRATEGIAK


Estrategia hauetako batzuk modu **kontzientean** aplikatzen ditu eta beste batzuk modu automatizatuan.



# Ulermena irakasten ahal da?

Bai, testuaren edukiari, egiturari, tipologiari... begira:


- Zentzu orokorra.
- Edukiaren informazio zehatza.
- Generoa identifikatzea.
- Asmoa zein den igartzea.
- Gaia eta ideia nagusia identifikatzea.
- Laburpena egitea hainbat asmorekin.



# IRAKURKETA ESTRATEGIAK

Gure ikasleak estrategietan trebatzen baditugu beraien irakurketaren ulermena hobetuko da.

Hau da gure erronka.



# IRAKURKETA ESTRATEGIAK


ESTRATEGIAK lan ditzakegu:

**Irakurri aurretik**

**Irakurri bitartean**

**Irakurri ondoren**

Hala ere, zenbait estrategia une ezberdinetan gauza daitezke.




# *IRAKURKETA ESTRATEGIEN ZERRENDA*

## *“Estrategiei buruzko zenbait argibide”*

### **Irakurri aurretik**


#### **1. Helburu ezberdinekin irakurtzea**

- Informazio zehatza lortzeko irakurtzea
- Informazio orokorra eskuratzeko
- Jarraibideei jarraitzeko
- Ikasteko
- Gozatzeko
- Entzule batzuei testua jakinarazteko...






**2. Irakurri aurretiko hipotesiak egitea,**  
elementu hauek aintzat hartuz: izenburua,  
formatoa, ilustrazioak...



Ikasleei lagundu behar diegu, ideiak gidatuz,  
galderak eginez...


- Zer testu mota da?
- Nori zuzenduta dago?
- Zer saldu nahi da?
- ...



### **3. Era askotako aurretiko ezagutzak aktibatzea**

Irakasleak komenigarritzat jo dezake testuak eskatzen dituen zenbait ezagutza zuzenean aktibatzea edo ematea:


- Edukiari buruzkoak
- Egileari buruzkoak
- Testu-generoari buruzkoak
- Hiztegiari buruzkoak



# Irakurri bitartean

## 4. Nork bere buruari galderak egitea irakurtzen ari denaren gainean

- Hiztegiari buruzko galderak
- Edukiari buruzkoak




# **Irakurri bitartean (batzuetan irakurri ondoren)**

**5. Laburbiltze partzialak egitea**

**6. Berriz irakurtzea**

**7. Inferentziak egitea**


**8. Informazio garrantzitsua  
markatzeko estrategia  
materialak**



## Irakurri ondoren

### **9. Testu mota, genero eta berariazko egitura identifikatzeko estrategiak**

Irakurlearen ezagupen testualak garrantzi handia du testu bat ulertzeko.




**Testu mota** (argudioa, azalpena, deskripzioa, narrazioa) **zein den antzematen badu, irakurleak abantaila izango du ulertzeko:**


Argudio testua dugu. Horregatik, tesi bat, argudioak eta ondorio bat aurkitzea espero dugu.

**Generoa** (artikulua, agiria, berria, eskutitza..) **ezagutzea** baliagarria izango da.

Adibidez, artikulua dela jakiteak lagunduko digu idazlearen asmoa eta balizko hartzailea ezagutzeko.



Gainera, generoa eta tipoa ezagutzea, testuaren egitura ezagutzeko lagungarria da. Irakurle trebeak egitura prototipikoak ezagutzen ditu eta honek ulermena errazten dio.






# Irakurri ondoren

## 10. Asmoaren araberako laburpenak egitea

Laburpena estrategia baliotsua da.

Laburpena dugun asmoaren arabera moldatuko da. Indarra ideia nagusian ala ekintzetan jar daiteke, pertsonaia baten nortasunean...


Testua laburtzen dugunean azpiestrategia asko erabiltzen ditugu: elementu batzuk baztertu, besteak hautatu, orokortu...




# Irakurri ondoren

## 11. Gaia eta ideia nagusiak identifikatzeko estrategiak

Gaia eta ideia nagusia bereiz daitezke. Lehenengoak testua zertaz ari den esaten digu. Baina ideia nagusiak garrantzi handiagoa du; honetarako, irakurlearen helburua eta, batez ere, idazlearen asmoa kontutan hartu beharko dugu.




Ohikoak diren akatsak zuzentzeko aholkuak




# *IRAKURKETA ESTRATEGIAK HOBETZEKO AHOLKUAK*

**1. Estrategia izendatzea ez da nahikoa,  
lantzen ari garen testuarekin lotu behar  
dugu**




# *IRAKURKETA ESTRATEGIAK HOBETZEKO AHOLKUAK*

## **2. Estrategia era egokian izendatu**



*IRAKURKETA ESTRATEGIAK HOBETZEKO  
AHOLKUAK*

**3. Ongi pentsatu jarritakoa estrategia ala zeregina arrunta ote den.**



# “ESTRATEGIAS DE LECTURA”

ISABEL SOLÉ

